



**Kale Neurketa**<  
>**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA**

**BERMEOKO  
HIZKUNTZA-ERABILERAREN  
KALE-NEURKETA, 2011  
-EMAITZEN TXOSTENA-**

Andoain, 2012-06-01ean

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>2. METODOLOGIA</b>	<b>4</b>
2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	4
2.2 'Bermeo 2011' neurketaren fitxa teknikoa	10
<b>3. ERABILERA BERMEON, 2011. URTEAN: EMAITZA OROKORRA</b>	<b>14</b>
3.1 Elkarrizketen herena baino zertxobait gehiago euskaraz, Bermeon	14
3.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila	16
3.3 Euskararen erabilera Bermeon, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta	19
<b>4. ERABILERAREN BILAKAERA BERMEON (1989-2011)</b>	<b>21</b>
4.1 Euskararen erabilerak behera egin du Bermeon azken 22 urteotan	21
4.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak	23
<b>5. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA ALDERATUA</b>	<b>25</b>
5.1 Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko, Gernika-Bermeoko eta Bermeoko datuen alderaketa	26
5.2 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa	28
5.3 Bilakaeren alderaketa	29
<b>6. ZONALDEKAKO EMAITZAK</b>	<b>31</b>
<b>7. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK</b>	<b>32</b>
7.1 Sexuaren araberako emaitzak	32
7.2 Sexuaren araberako bilakaera	33
7.3 Adinaren araberako emaitzak	34
7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera	37
<b>8. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA</b>	<b>38</b>
8.1 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	40
<b>9. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)</b>	<b>41</b>

# 1. SARRERA

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegietakako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Datu eta joera horiek guztiak, nonbait nabarmentzekotan, herriko kaleetan besteak beste ematen den eguneroko erabileran nabarmentzen dira. Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kale-erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen-lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horietan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek erraztu egiten digu ondoren lehentasunak non dauden erabakitzea. Gainera, kale-erabileraren neurketa maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitu.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Bermeon egin dugun Hizkuntza-erabileraren Neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina herriko berezitasunetara egokituta.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik bost alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an. Azken neurketan bezala, hemendik aurrerakoak ere bost urtean behin egingo dira (besteak beste, eroldako datuekin bateratze aldera). Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hortik beherako batzuetan jasotzen dira datuak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan.

Kale-neurketaren metodologia behaketa zuzena da; neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, ezertxo ere galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna saihesten da eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

#### Landa-lana

Landa-lana burutzerakoan neurtu beharreko kaleak aurrez identifikatzen dira ibilbide bat (edo gehiago) zehaztuz. Horretarako irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitzen dira, eta horien hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izaten da; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

## Elkarrizketa-hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa-hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale-erabileraren neurketa izanik, hiztun-talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kanean behatzen ditugun hiztun-taldeek hizkuntza-jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu horietan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza-ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakiteneen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz edo frantsesez, alegia). Eta dakiteneen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza-ohiturak aldatu ere egiten direla baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza-ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

## Fitxak

2011ko neurketa honetan erabilera-datuak fitxa bakarrean jaso ditugu. Fitxa honen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen adin-osaketa. Neurraldi guztietan fitxa berdina erabili da.

Ikus ondoren fitxa horien irudiak:



**HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA**  
 SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA  
 E. 943 592 556  
 kluster@soziolinguiстика.org

HERRIA: \_\_\_\_\_  
 BILURDUA: \_\_\_\_\_  
 EGUNA: \_\_\_\_\_ ORDUA: \_\_\_\_\_  
 NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

EUSKARA GAZTELAK HERRIETAN (E/E)	BIZITOKI BIZITOKIA	EUSKARA GAZTELAK HERRIETAN (E/E)	BIZITOKI BIZITOKIA	Haurrek	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrek hitz egiten	
				(2-14 urte)	(15-24 urte)	(24-64 urte)	(65- urte)	BAI	EZ
01									
02									
03									
04									
05									
06									
07									
08									
09									
10									
11									
12									
13									
14									
15									
16									
17									
18									
19									
20									

■ Emakumeak ■ Gizonak - 001 -

OHARRAK: \_\_\_\_\_

EUSKARA GAZTELAK HERRIETAN (E/E)	BIZITOKI BIZITOKIA	EUSKARA GAZTELAK HERRIETAN (E/E)	BIZITOKI BIZITOKIA	Haurrek	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrek hitz egiten	
				(2-14 urte)	(15-24 urte)	(24-64 urte)	(65- urte)	BAI	EZ
21									
22									
23									
24									
25									
26									
27									
28									
29									
30									
31									
32									
33									
34									
35									
36									
37									
38									
39									
40									
41									
42									

■ Emakumeak ■ Gizonak

Aipatutako aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat atera dezakegu, esan bezala, hiztunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digun fitxaren bidez.

## “Bermeotarren” erabilera baino gehiago Bermeoko

### kaleetakoa

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Bermeoko biztanleen (bermeotarren) erabilera denik. Horren ordez, zuzenagoa da esatea Bermeoko kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

Bestalde, kale-erabileraren neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale-erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

### Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia, eta sexua, besteak beste. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baina hiztuna hurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona-kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren araberako azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.

### Oharrak

Eta atal honi amaiera emateko, ikus ondoren datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

## HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA



### Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara"; "gaztelera/frantsesa (Ipar EH)" eta "besterik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besterik" zutabean adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)"; "gazteak (15-24 urte)"; "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
  1. Euskaraz **laukian** "X" markatu.
  2. Haurren zutabean, emakumezkoen **laukian** "1" adierazi eta gizonezkoen **laukian** beste "1" adierazi.
  3. "Haurrak hitz egiten" zutabean "bai" **laukian** "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztekeraz hitz egiten ari dira haien artean (Ipar Euskal Herrian frantsesez), 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
  1. Gaztekeraz **laukian** "X" markatu.
  2. Haurren zutabean emakumezkoen **laukian** "1" adierazi; gazteen zutabean gizonezkoen **laukian** "1"; eta helduen zutabean emakumezkoen **laukian** "1" eta gizonezkoen **laukian** beste "1" markatu.
  3. Haurrak hitz egiten zutabean "ez" **laukian** "X" seinalatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztekeraz ari dira (**03 elkarrizketa**):
  1. Gaztekeraz **laukian** "X" markatu.
  2. Gazteen zutabean emakumezkoen **laukian** "2" eta gizonezkoen **laukian** "3" adierazi.
  3. Haurrak hitz egiten zutabean "ez" **laukian** "X" markatu.



## HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

### Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

### Neurketa, ez inkesta

Kalean goazela jendea ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzan. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendea ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenan. Kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

### Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina egozkiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendea entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatzen da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

### Ibilbidea

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koadernoaren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). **Ibilbidea** herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. **Ibilbideak** hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatze beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa **ibilbide** guztian zehar egitea da.



## 2.2 'Bermeo 2011' neurketaren fitxa teknikoa

### Prozedurak

Aurreko puntuan, Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa egiteko metodologia azaldu dugu zehatz-mehatz. Hor adierazitako xehetasun guztiak baliagarriak dira Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren berri emateko ere.

### Ibilbideak

2011ko Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa egiteko hiru ibilbide izan ditugu:

1. Ibilbidea: Goiko Plaza-Intxausti: Intxausti (1. ibilbidea): Goiko Plaza, Doniene, Irakaskintza, Goiko Plaza (aste barruan, larunbatean ez). Nardiz tar Jon, Arresi, Bizkaiko Jaurerria, Dolariaga (Eroski eta Azokaren inguruak), Zubiaur tar Kepa (Ercoreca dendaren inguruak), Erremedio, Goiko.
2. Ibilbidea: Erreten Lamera-Portuzarra: Portuzarra: Erreten Lamera, Erribera, Gonzalo Nardiz Plaza, Askatasun bidea (San Andreseraino), Eskoikiz, Frantzisko Deuna atea, Lamera (Casino, Liburutegia, zabuak, Sollube), Portuzarra.
3. Ibilbidea: Eskola publikoaren inguruak: J.A. Erauzkin plaza, Arresi, Sanjuanportale, Matxitxako etorbidea (Karmeldar ikastetxearen inguruak).

## Landa-lana




Landa-lanari dagokionez, datu-bilketa 2011ko urriaren 4a eta otsailaren 28a bitartean egin dugu. Neurketa hori bi fasetan burutu da: lehena urria eta azaroa bitartean eta bigarrena -datu-bilketa osagarria komenigarria zela iritzita-, otsailean.

Ondoren ikus daiteke ibilbideak eta egutegiak biltzen dituen fitxa:

Lurraldea: Bizkaia		BERMEO	
Ibilbidea Non	Datak	Ordutegia	Kaleak
<b>1. Ibilbidea</b>	Urriak 4, asteartea	16:00-18:00	<b>Bermeo 1 (Goiko Plaza-Intxausti):</b> Intxausti (1. ibilbidea): Goiko Plaza, Doniena, Irakaskintza, Goiko Plaza (aste barruan, larumbatean ez). Nardiz tar Jon, Arresi, Bizkaiko Jauregia, Dolariaga (Eroski eta Azokaren inguruak), Zubiaur tar Kepa (Ercorea dandaren inguruak), Erramedio, Goiko.
	Urriak 6, osteguna	16:00-18:00	
	Azaroak 9, asteazkena	18:00-20:00	
	Azaroak 12, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00	
	Otsailak 11, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00	
	Otsailak 15, asteazkena	18:00-20:00	
	Otsailak 18, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00	
	Otsailak 22, asteazkena	18:00-20:00	
<b>2. Ibilbidea</b>	Urriak 5, asteazkena	18:00-20:00	<b>Bermeo 2 (Erreten Lamera-Portuzarra):</b> Portuzarra (2. ibilbidea): Erreten Lamera, Erribera, Gonzalo Nardiz Plaza, Askatasun bidea (San Andres eraino), Eskoikiz, Frantzisko Deuna atea, Lamera (Casino, Liburutegia, zabuak, Sollube), Portuzarra.
	Urriak 8, larunbata	12:00-14:00 eta 18:00-20:00	
	Otsailak 11, larunbata	12:00-14:00 eta 18:00-20:00	
	Otsailak 15, asteazkena	18:00-20:00	
	Otsailak 18, larunbata	12:00-14:00 eta 18:00-20:00	
	Otsailak 22, asteazkena	18:00-20:00	
<b>3. Ibilbidea</b>	Urriak 15, larunbata	12:00-14:00 eta 18:00-20:00	<b>Bermeo (3. Ibilbidea):</b> Eskola publikoaren inguruak, J.A. Erauzkin plaza, Arresi, Sanjuanportale, Matxitxako etorbidea (Karmeldar ikastetxearen inguruak)
	Urriak 19, asteazkena	18:00-20:00	
	Azaroak 8, asteartea	16:00-18:00	
	Azaroak 10, osteguna	16:00-18:00	
	Otsailak 14, asteartea	16:00-18:00	
	Otsailak 23, osteguna	16:00-18:00	
	Otsailak 28, asteartea	16:00-18:00	

## Mapak

Ikus ondoren ibilbideen nondik norakoak errazteko erabilitako mapa orokorra eta ibilbide desberdinekin prestatuturikoak:



## Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

UNIBERTSOA: Bermeoko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

LAGINA: neurketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 2.510 elkarrizketek osatu dute lagina, guztira 14.902 hiztun.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):  $\pm 2,9$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0eko konfiantza mailan, eta  $p=q=50,0$  izanik (behatutako elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoa).


# 3. ERABILERA BERMEON, 2011.

## URTEAN: EMAITZA OROKORRA

### 3.1 Elkarrizketen herena baino zertxobait gehiago euskaraz, Bermeon

Bermeoko kaleetan entzundako elkarrizketen herena baino zertxobait gehiago, %36,6 zehatzago esateko, euskaraz izan da. Gainerako elkarrizketak gaztelaniaz izan dira nagusiki (%59,6) eta badira beste hizkuntzetan gertatzen direnak ere (%3,7), 2011ko urrian hasi eta 2012ko otsailean amaituriko neurketaren arabera.

#### A. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. BERMEO, 2011 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

#### 1. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. BERMEO, 2011 (%)

	Kop.	(%)
Euskaraz	5.461	36,6
Gaztelaniaz	8.885	59,6
Beste hizkuntzetan	556	3,7
GUZTIRA	14.902	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

Horixe da Bermeoko herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin den (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, guztira 14.902 lagunen elkarrizketak behatu ditugula Bermeon. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 16.375 biztanle dituen herri batentzat<sup>1</sup>. Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %9,0ko kopuru horri  $\pm$ %1,2ko akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan<sup>2</sup>. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

---

<sup>1</sup> Iturria: INE, udal-errola 2011 (urtarrilak 1).

<sup>2</sup> Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.org/eu/lagina/eskaera/kale-erabilera>)

## 3.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila

Ehuneko 36,6koa da, hortaz, euskararen erabilera<sup>3</sup> Bermeon. Kopuru hori asko den edo gutxi den hausnartzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta kopuru horretatik eratortzen den “esperotako euskararen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

### Bermeotarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2006. urtean egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, hiztunen ia hiru laurdenak, %73,5 zehatz esanda, euskaldunak ziren Bermeon. Populazioaren beste %16,9, euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nola halako ezagutza bat, ulermen mailan, behintzat, eta gainerako %9,6a erdalduna zen<sup>4</sup>, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere ez zekiten biztanleez osatutako taldea. Horiek dira Bermeoko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak. 2011n antzeko operazio estatistiko bat egin du EUSTATEk, baina datu horiek ez dira oraingoz argitaratu.


<sup>3</sup> Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearren, ordea, “erabilera” terminoa erabiliko dugu. Izan ohar hau kontuan txosten osorako.

<sup>4</sup> Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galdereri (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez



## B. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. BERMEO, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

## Espero daitekeen euskararen erabilera

Zer-nolako harremana dago ezagutzaren eta erabileraren artean? Kasu honetan, Bermeon neurtutako erabilera (%36,6 euskaraz) handia edo txikia da, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tartea kontuan hartuta (%73,9 euskaldun)?

Galdera horri erantzuten laguntzeko, bere garaian J.L. Alvarez Enparantza Txillardegik eredu matematiko bat garatu zuen<sup>5</sup>. Eredu horretan, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatzeko da:

<sup>5</sup> Gaian sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegik, 2001, *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 2002, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 54-68 orr.

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

$P_B$  = euskararen erabilera maila

$m_B$  = euskararekiko leialtasuna

$e_x$  = elebidunen proportzioa

$w_2$  = bikoteen pisua

$w_3$  = hirukoteen pisua

$w_4$  = laukoteen pisua

Eta aplika dezagun formula hori Bermeoko errealitatera.


$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,735^2 + 0,22 \cdot 0,735^3 + 0,18 \cdot 0,735^4) = 0,464 = \%46,4$$

Kalkuluak eginda, hortaz, Bermeoko kasurako %46,4koa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Bermeoko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %46,14koa da espero daitekeen euskararen erabilera.

### 3.3 Euskararen erabilera Bermeon, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu grafiko batean orain arte aipaturiko hiru datu nagusi horiek:

**C. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA BERMEON, 2011 (%)**



*Iturriak:* Soziolinguistika Klusterra, *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011;* EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006.*

**2. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA BERMEON, 2011**

	(%)
Hizkuntza-gaitasuna 2006 (euskaldunen %a)	73,5
Erabilera erreala 2011	36,6
Espero daitekeen erabilera 2006 (kalkulua)	46,4

*Iturriak:* Soziolinguistika Klusterra, *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011;* EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006.*

C grafikoan eta 2. taulan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera dezente apalagoa da Bermeon ezagutza baino. Zehazki, elebidunen kopurutik (%73,5)

urruti gelditzen da euskararen erabilera behatua (%36,6), haren erdian, hain zuzen. Lehen begiratu batean badirudi euskara gutxi erabiltzen dela Bermeon, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruarekin alderatuta; ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte hori oso handia dela, alegia. Nolanahi ere, erabileraren eta ezagutzaren proportzioak zuzenean alderatzen diren ondorioak, sarri, zuzendu beharrekoak izaten dira, ia ezinezkoa baita erabilera- eta ezagutza-datuak bat etortzea. Kontuan izan behar da ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta noski, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz egingo dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori Bermeon, %46,4koa da.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula praktikan harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela praktikan edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu praktikan inoiz harremanik). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa izaten eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.

Bermeon euskararen erabilera erreala dezente beherago dago baldintza isotropikoetan espero daitekeena baino: %46,4tik %36,6ra doa hain zuzen -ia hamar puntuko aldea-.

Datu horiek kontrastatuta esan daiteke, zeharka, adierazi dezake herriko euskaldunen arteko harreman-sareko hizkuntza ez dela espero bezain finkoa euskararekiko leialtasunari dagokionez; hau da, espero baino sarriagotan hartzen dute euskaldunek gaztelania komunikazio-hizkuntza modura euren artean.

## 4. ERABILERAREN BILAKAERA BERMEON (1989-2011)

### 4.1 Euskararen erabilerak behera egin du Bermeon azken 22 urteotan


Azken mende laurdenean hainbat ikerketa egin izan dira Bermeon hizkuntzen kale-erabilera neurtzeko. Soziolinguistika Klusterrak 2006an egin zuen Bermeon lehen neurketa berezia eta 2011. urtean bigarrena. Nolanahi ere 2001ean SEI Elkarreak egin zuen neurketa, eta 1989an, 1993an eta 1997an EKBk.

Kontutan hartu behar da 2006tik aurrerako neurketen diseinuak berrikuntzak izan zituztela, izan ere, kale gehiago neurtu dira herrian eta behaketak egun gehiagotan egin dira 2006 eta 2011ko neurketetan.

Neurketa horietako guztietako emaitza nagusiak 3. taulan eta D. grafikoan aurkeztuko ditugu. Ikus daitekeen bezala, euskararen erabilerak behera egin du Bermeon 1989tik gaur egun arte (%42,9tik %36,6ra). Hala ere, igoera inportantea izan zen 2001etik 2006ra bitartean (%42,9tik %60,2ra).

Baina oso adierazkorra da, zalantzarik gabe, azken bost urteetan izandako beherakada, zehazki, %36,6ra erori baita, hau da, 23 puntu inguruko beherakada.

**D. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. BERMEO, 1989-2011 (%)**



*Iturria:* 1989., 1993., 1997., 2001. eta 2006. urteetako datuak *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* ikerketatik eskuratu ditugu. Lehengo hiru neurketak EKBk egin zituen, 2001ekoa SEI Elkarteak eta 2006. eta 2011.a Soziolinguistika Klusterrak.

**3. TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. BERMEO, 1989-2011 (%)**

	Euskaraz (%)
1989	42,9
1993	47,1
1997	48,1
2001	54,4
2006	60,2
2011	36,6


*Iturria:* 1989., 1993., 1997., 2001. eta 2006. urteetako datuak *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* ikerketatik eskuratu ditugu. Lehengo hiru neurketak EKBk egin zituen, 2001ekoa SEI Elkarteak eta 2006. eta 2011.a Soziolinguistika Klusterrak.

## 4.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak

### Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

Gertakaria ulertzen laguntzeko hainbat datu bilduko dira ondoren, besteak beste, herritarren hizkuntza-gaitasunean izandako bilakaera kontuan hartuta 1986. urtetik 2006. urtera bitartean.

#### E. GRAFIKOA: EUSKARAREN EZAGUTZAREN BILAKAERA BERMEO, 1986-2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

#### 4. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. BERMEO, 1986-2006 (%)

	1986	1991	1996	2001	2006
Euskaldunak	74,2	76,8	77,6	75,7	73,5
la euskaldunak	10,8	11,3	12,1	15,5	16,9
Erdaldunak	15,0	11,3	10,0	8,7	9,6
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

Datuak irakurri aurretik, esan behar da seriea ez dela guztiz homogenea. Izan ere, 2006ko datuak eskuratzeko jarraitu zen metodologian aldaketa handiak gertatu ziren ordura arteko datu-bilketekin alderatuta. Aurrekoetan ez bezala, 2006koan informazioa biltzeko prozedura zuzenak askoz gutxiago erabili zituzten, eta nagusiki zeharkako iturriez baliatuz, kalkuluetan oinarritutako sistema baten bidez sortu ziren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak. Horregatik, gure ustez, 2006ko datuak ezin dira zuzenean alderatu 2001era artekoekin. Hala eta guztiz, joera orokorrari antzemateko baliagarriak zaizkigu datu horiek. Datuon arabera esan daiteke euskaldun-kopuruak ez duela ez gora ez behera egiten oro har, nahiz eta alderik badagoen ia euskaldunen kopuruan.

Hala ere, oso kontuan hartzekoa izan daiteke 1996. urtera arte izandako igoera eta hortik aurrerako beheranzko joera, hau da, azken 15 urteetan beherantz doa Bermeotarren artean euskaraz hitz egiteko gai diren lagunak.


Nolanahi ere, ia euskaldunen kopurua 6 puntutan igo da, eta beraz, erdaldunen kopuruak egin du behera %15etik %9,6ra (lehen esan bezala, 2011ko datuak argitara emateko daude oraindik).



## 5. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA ALDERATUA

Aurkeztu ditugu jada Bermeoko euskararen erabilera eta ezagutza nola aldatu diren adierazten dituzten datuak. Ondorengo grafikoan, bi datu-serie horiek hartu eta elkarren ondoan jarri ditugu.

F. GRAFIKOA: EUSKARAZ DAKITENEN ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. BERMEO, 1986-2011 (%)




Iturriak: ezagutzarako, EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak*. Erabilerarako: 1989., 1993., 1997., 2001. eta 2006. urteetako datuak *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* ikerketatik eskuratu ditugu. Lehengo hiru neurketak EKBk egin zituen, 2001ekoa SEI Elkartek eta 2006. eta 2011.a Soziolinguistika Klusterrak.

## 5.1 Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko, Gernika-Bermeoko eta Bermeoko datuen alderaketa

Ondorengo grafikoan, 2011. urteko neurketak bildutako hainbat lurralde-eremutako emaitzak aurkezten dira. Ikus daitekeen bezala, Bermeoko euskararen kaleko erabilera (%36,6) Euskal Herrikoa (%13,3), EAEkoa (%16,1) eta Bizkaikoa (%9,4) baino handiagoa da. Aldiz, Gernika-Bermeo eskualdeko datuarekin alderatuta (%42,4) apalagoa da.


**G. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, GERNIKA-BERMEO ETA BERMEO, 2011 (EUSKARAZ %)**



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2011 eta Euskal Herriko hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2011.*

Datu horiek apur bat testuinguratzeko, kontuan har dezagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna batetik eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek ondoko grafiko honetan aurkezten dira.

**H. GRAFIKOA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, GERNIKA-BERMEO ETA BERMEO, 2011 (%)**



*Iturriak:* erabilerarako, Soziolinguistika Klusterra, *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* eta *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*. Hizkuntza-gaitasunerako, Soziolinguistika Klusterra, *Euskararen Datu Basea* eta EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006*.


*Oharra:* Euskal Herriko hizkuntza-gaitasunaren datua (eta espero daitekeen erabilerarena) 2001. urtekoak dira.

Ikus daitekeenez, Bermeok, erkatzen ari garen eremu guztien artean euskaldun ehuneko altuena du (Euskal Herria, EAE, Bizkaia, Gernika-Bermeo). Horren arabera, espero daitekeen erabilera-tasa ere altuena du. Baina erabilera-tasa erreala horren azpitik dago modu esanguratsuan Bermeon, gainerako kasuetan ez bezala. Espero daitekeen tasaren eta erabilera errealaren arteko 10 puntuko alde hori da, hain zuzen, ikerketa honek eman duen daturik esanguratsuenetako bat.

## 5.2 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Nolanahi ere, euskara gehiago erabiltzen da Bermeon Euskal Herrian, EAEn eta Bizkaian baino, oro har hartuta. Aldiz, Gernika-Bermeoko eskualdean baino erabilera apalagoa du. Aldera ditzagun orain datuok zehatzago, Bermeoko ezaugarri soziolinguistiko bertsuak dituzten Bizkaiko hainbat herrirekin.

### I. GRAFIKOA: GAITASUNA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. BERMEO, ONDARROA, GERNIKA ETA IGORRE, 2011 (%)




*Iturriak:* Erabilerarako, Soziolinguistika Klusterra, *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* eta *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*. Hizkuntza-gaitasunerako, EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006*.

2011ko neurketako datuek adierazten dute, I. grafikoan ikus daitekeen bezala, Bermeon entzuten den euskara-tasa apalagoa dela antzeko herrietan entzuten denarena baino. Horrela, Bermeon Gernikan eta Igorren baino euskaldun gehixeago egonda ere, dezente gutxiago entzuten da euskara bertako kaleetan. Datu horiek espero daitekeen erabilerari buruzkoekin alderatuz ere diferentziak esanguratsuak dira, lau herri horien artean Bermeon soilik baita apalagoa erabilera erreala espero daitekeena baino.

## 5.3 Bilakaeren alderaketa

### J. GRAFIKOA: HIZKUNTZA-ERABILERAREN BILAKAERA, EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, GERNIKA-BERMEO, GERNIKA, 1989-2011 (EUSKARAZ- %)



**Iturriak:** Bermeorako 2001. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* txostenetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* 1989 (EKB), 1993 (EKB), 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 (Soziolinguistika Klusterra) eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

### 5. TAULA: HIZKUNTZA-ERABILERAREN BILAKAERA, EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, GERNIKA-BERMEO, GERNIKA, 1989-2011 (EUSKARAZ- %)

	Euskal Herria	EAE	Bizkaia	Gernika-Bermeo	Bermeo
1989	10,8		8,1		42,9
1993	11,8	13,7	9,6	54,1	47,1
1997	13,0	15,2	10,5	56,3	48,1
2001	13,3	16,1	10,7	54,0	54,4
2006	13,7	16,8	10,7	51,6	60,2
2011	13,3	16,7	9,4	42,4	36,6

**Iturriak:** Bermeorako 2001. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* txostenetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* 1989 (EKB), 1993 (EKB), 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 (Soziolinguistika Klusterra) eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

J. grafikoan ikus daitekeen bezala, aztertutako eremu gehienetan (Euskal Herrian, EAEn, eta Bizkaian) aldaketak ez dira oso handiak izan 1989-2011 tartean; Euskal Herrian, EAEn eta Bizkaian, euskararen erabilera poliki baina gora egin du 1989tik 2006 urtera arte, eta hortik 2011ra aldaketa gutxi gertatu da.


Aldiz, Gernika-Bermeoko eskualdean, igoera-epe labur baten ondoren, beheranzko joera iraunkor bat antzeman daiteke 1997 urtetik aurrera.

Bermeon, aldiz, 1989. urtetik 2006. urtera bitarteko garrantzi handiko igoeraren ondoren, beherakada deigarri bat gertatu da azken bost urteko aldaketa irudikatzen duen datuan, %60,2etik %36,6ra joan baita erabilera-datua.

## 6. ZONALDEKAKO EMAITZAK

Herritarren leku publikoetako hizkuntza-erabilera neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa. Zonalde horiek zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan jarraitu beharreko ibilbidea erabaki, udaleko teknikariekin elkarlanean. Bermeoren kasuan, hiru ibilbidetan banatu dugu udalerria. Emaitzak ondorengo taula eta grafikoetan aurkezten dira. Ibilbide desberdinetan bildutako datuen arteko aldeak ez dira oso garrantzizkoak, nahiz eta, ikusiko den modura, lehen ibilbidean 4 puntuko aldea egon badagoen.

### K. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. BERMEO, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Bermeoko hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa, 2011.*

### 6. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. BERMEO, 2011 (EUSKARAZ, %)

	Bermeo 1: Goiko plaza, Intxausti	Bermeo 2: Erreten Lamera-Portuzarra	Bermeo 3: Eskola publiko ingurua
Euskaraz	39,4	35,1	35,4
Gaztelaniaz	57,8	60,0	61,2
Beste hizkuntzetan	2,8	4,9	3,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (kasu kopurua)	5.038	5.295	4.569

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Bermeoko hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa, 2011.*


# 7. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK

## 7.1 Sexuaren araberako emaitzak

Oso esanguratsua izan ez arren bada alderik gizonen eta emakumeen hizkuntza-portaeren artean 2011ko datuen arabera: bi puntu eta erdikoa da aldea, zehazki %37,8 eta %35,2ra doana, emakumeen eta gizonen erabileraren artean, hurrenez hurren.

Baina, hasieran esan bezala, ez dugu uste alde esanguratsua denik desberdintasun hori.

**L. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. BERMEO, 2011 (EUSKARAZ, %)**



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

**7. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. BERMEO, 2011**

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	37,8	35,2
Gaztelaniaz	59,4	59,9
Beste hizkuntzetan	2,8	4,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Oinarria (behatutako solaskideak)	8.087	6.815


*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*



## 7.2 Sexuaren araberako bilakaera

Bermeoko joera orokorrarekin bat, gizonezkoek eta emakumezkoek gutxiago erabiltzen dute euskara 2011 urtean, hamar urte lehenago baino. Gure datuen arabera, emakumezkoen artean 2006ko %60,5etik 2011ko %37,8 jaitsi da euskararen erabilera, eta gizonezkoen artean, %59,9tik %35,2ra.

M. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. BERMEO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)



*Iturriak:* Udalaren eskariz egindako Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2006 eta Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

8. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. BERMEO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)

	2006	2011
Emakumezkoak	60,5	37,8
Gizonezkoak	59,9	35,2


*Iturriak:* Udalaren eskariz egindako Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2006 eta Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

Emakumezkoek zein gizonezkoek, beraz, euskara gutxiago erabiltzen dute orain, duela bost urte baino.

## 7.3 Adinaren arabera emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaera adinaren arabera aztertuz gero. Adineko pertsonak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak Bermeon: 2011ko neurketan %59,8koa izan da erabilera hori. Ondoren, haurren taldea agertzen da erabilera handienarekin (%42,4). Helduen taldeak jarraitzen dio hurrenkerari (%29,5) eta aipagarria da erabilera-tasa txikiena gazteen artean neurtu dela (%19,1).

### N. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. BERMEO, 2011 (EUSKARAZ, %)



*Iturria:* Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabilera-kale-neurketa, 2011.

### 9.TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. BERMEO, 2011 (EUSKARAZ, %)

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	13,1	42,4	19,1	29,5	59,8
Gaztelaniaz	17,1	55,0	78,3	65,2	39,5
Beste hizkuntzetan	0,8	2,7	2,7	5,3	0,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	14.902	4.621	934	7.476	1.871

*Iturria:* Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabilera-kale-neurketa, 2011.


Datuok deigarriak dira hainbat alderditik ikusita. Euskal Herriko datu orokorrekin alderatuta funtsezko desberdintasuna antzematen da: Euskal Herrian, oro har hartuta, zenbat eta belaunaldi gazteagoa izan, orduan eta euskararen erabilerak egiten du gora. Hots, gehien erabiltzen dutenak haurrak dira, ondoren gazteak, jarraian helduak eta, azkenik, nagusiak. Esan beharrik ez dago, hurrenkera hori dela, euskararen berreskurapenaren ikuspegitik egokiena.

Oso bestelakoak dira Bermeoko datuak. Bermeon adinekoak dira euskara gehien darabiltenak, alde handiarekin gainera. Helduek adinekoek baino gutxiago erabiltzen dute euskara, eta are gutxiago gazteek. Haurrak ere ez dira adinekoen mailara iristen.

Ondorengo grafikoak biltzen ditu adinaren arabera euskara hitz egiteko gaitasun-tasak. Bermeoko kasuan garbi ikusten da haurren artekoa dela erdaldun-tasa txikiena (%5,7). Beste aldean, euskaldun-tasa handiena adinekoen artean dago (%80,4). Nolanahi ere, euskaldun eta ia-euskaldunen arteko kopurua %90 ingurukoa da haurren, gazteen eta helduen artean, edozein kasutan ere, %70etik gorakoa da euskaldunen kopurua.

Azpimarra daiteke bestalde, adin-talde guztietan euskaldun-kopurua altua dela, denetan %70etik gorakoa. Beraz, deigarria egiten da ezagutza-maila antzekoa izanik holako desberdintasun handiak gertatzea adinaren banaketarekin batera.

**O. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. BERMEO, 2006 (%)**



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006.

**10. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA.  
BERMEO, 2006**

	<b>GUZTIAK(kop.)</b>	<b>Haurrak(kop.)</b>	<b>Gazteak(kop.)</b>	<b>Helduak(kop.)</b>	<b>Adinekoak(kop.)</b>
<b>Euskaldunak</b>	12.040	1.282	1.323	6.781	2.654
<b>Ia euskaldunak</b>	2.764	327	273	1.886	278
<b>Erdaldunak</b>	1.571	97	132	972	370
<b>GUZTIAK</b>	16.375	1.706	1.728	9.639	3.302


	<b>(%)</b>	<b>(%)</b>	<b>(%)</b>	<b>(%)</b>	<b>(%)</b>
<b>Euskaldunak</b>	73,5	75,1	76,6	70,3	80,4
<b>Ia euskaldunak</b>	16,9	19,2	15,8	19,6	8,4
<b>Erdaldunak</b>	9,6	5,7	7,6	10,1	11,2
<b>GUZTIAK</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

*Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006*

## 7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera

Adinaren araberako hizkuntza-portaeraren bilakaerari erreparatuz, beheranzko joera nabarmena antzematen da adin-tarte guztietan azken bost urteko epean. Aurretik, ordea, goranzko bide orokorra egin zen. Hogeita bi urteko epealdia hartuz gero, talde guztietan gertatu da beherakada hori gazteen kasuan izan ezik; talde horretan %7,1etik %19,1era joan da epe horretan.

**P. GRAFIKOA: HIZKUNTZA-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA BERMEO, 1989-2011 (EUSKARAZ%)**



*Iturriak:* Bermeorako 2001. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak txostenetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* 1989 (EKB), 1993 (EKB), 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 (Soziolinguistika Klusterra) eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

**11. TAULA: HIZKUNTZA-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA BERMEO, 1989-2011 (EUSKARAZ%)**


	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1989	44,0	7,1	43,4	77,1
1993	40,2	11,7	53,2	86,8
1997	56,1	23,6	41,2	71,6
2001	62,6	39,7	51,4	68,4
2006	70,5	37,1	48	80,3
2011	42,3	19,1	29,5	59,8

*Iturriak:* Bermeorako 2001. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak txostenetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* 1989 (EKB), 1993 (EKB), 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 (Soziolinguistika Klusterra) eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

## 8. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

**Q. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. BERMEO, 2011 (EUSKARAZ, %)**



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Haurrak eta nagusiak elkarriketa bereko partaide direnean, hitz egitean da gehien euskaraz (%46,0).

haurrak bakarrik (nagusirik gabe) edo nagusiak bakarrik (haurrik gabe) ari direnean, erdarara jotzen dute batzuek zein besteek nagusiki; %32,2 eta %30,2 da hurrenez hurren euskaraz hitz egitearen datua.

**12. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. BERMEO, 2011**

	GUZTIAK	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	39,3	32,2	30,2	46,0	31,0	58,2
Gaztelaniaz	56,9	66,4	65,7	50,0	64,6	38,2
Beste hizkuntzetan	3,8	1,4	4,2	5,0	4,4	3,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	101,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	20.761	1.942	7.101	5.859	2.623	3.236

*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*


Badira nolnahi ere beste datu deigarriak ere Bermeoko neurketan. Haurren artean, bakarrik daudenean %32,2 da euskararen erabilera. Aldiz helduekin nahasian egonik, euren jarduera %58,2ra igotzen da. Nolabait esan, badirudi helduen presentziak eragin handia duela haurren portaera linguistikoan; euskaraz gehiago hitz egiten dute nabarmen helduen artean daudenean bakarrik daudenean baino.

Aldi berean, interesgarria da azpimarratzea ez dela horrelako aldaketarik ikusten helduen artean: eurek bakarrik egonda (%30,2) edo haurrekin elkarrekin baina eurak hitz egiten (%31) bildutako datua ia-ia bera baita.

## 8.1 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera

Bilakaera aztertuz, esan dezakegu solas-taldearen osaeraren arabera euskararen erabileraz esandakoa ez dela berria Bermeon, eta bost urte lehenago ere joera bera ageri zela; hots, haurrak haurrekin, nagusiak nagusiekin eta nagusiak haurrekin egonik euren artean askoz gutxiago egiten dute euskaraz, hurrek nagusiekin hitz egiten dutena baino. Ez dirudi, hortaz, fenomeno berri-berri baten aurrean gaudenik.

**R. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. BERMEO, 2006-2011 (EUSKARAZ, %)**



*Iturriak: Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2006 eta Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Bilakaera-datuei erreparatuz, datu aipagarriena, oro har, solas-taldearen osaera edozein dela ere, euskararen erabilerak behera egin izana da, 2006ko neurketan gertatzen zen modu berean kopuru altuena helduen presentziarekin loturikoa da haurren kasuan. Nolanahi ere, kasu horretan ere 30 puntu inguru jaitsi izana oso datu deigarria eta adierazgarria da.



## 9. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

Hona hemen 2011. urteko udazkenean, Bermeoko udalerrian Soziolinguistika Klusterrak egindako *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* ikerketaren ondorio nagusiak:

- *Bermeoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* arabera, %36,6koa izan zen Bermeon euskararen erabilera. Elkarrizketa gehienak gaztelaniaz izan ziren (%59,6) eta gainerako %3,7a beste hizkuntzetan.
- Azken bost urteetan erabilera ia erdira jaitsi da Bermeon (%60,2tik %36,6ra). Kopuru hori neurketak egiten hasi zireneko lehen neurketan jasotakoa baino apalagoa da; 1989 urtean eginiko neurketan %42,9koa izan zen jasotako datua.
- Bermeoko euskararen ezagutza kontuan hartuta espero daitekeen erabilera-tasa baino apalagoa da kaleko erabilera erreala (%73,5, %46,4 eta %36,6 hurrenez hurren). Erlatiboki, beraz, bertako herritarren hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, euskara gutxi entzuten da Bermeoko kaleetan.
- Gaitasunaren aldetik kontuan hartzekoa da euskaldun-kopurua apenas aldatu dela 22 urteen buruan (%74,2tik 73,5era). Nolanahi ere, akaso, kontuan hartu behar da 1996. urtetik aurrerako ezagutza-maila beheranzko joera hartu duela; 1996ko %77,6tik 2006ko %73,5ra.
- Euskal Herriko, EAEko eta Bizkaiko ezagutza eta erabilera baino altuagoa da Bermeon. Aldiz, Gernika-Bermeo eskualdeko erabilera-tasa baino txikiagoa du, nahiz eta ezagutza eta espero daitekeen tasa handiagoa izan.

- Adinaren araberako datuen banaketak azalpen interesgarriak eskaintzen ditu:
- Adinekoak dira nagusiki euskaraz gehien hitz egiten dutenak (%59,8). Ondoren, haurrak (%42,4), helduak (%29,5) eta azkenik erabilera apalenarekin gazteak (%19,1).
- Hurrenkera hori, Euskal Herriko ohikoa izan ez arren, nahiko konstantea da neurketak egiten hasi zirenetik aurrera: adinekoen erabilera izan da beti altuena eta gazteena apalena.
- Haurrak hurrekin ari direnean eta nagusiak nagusiekin, askoz gutxiago entzuten da euskaraz hitz egiten (%32,2 eta %30,2 hurrenez hurren) haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean baino (%46).
- Nolanahi ere, haur eta nagusien arteko elkarte horietan bada oso kontuan hartzeko gai bat: hurrek hitz egiten dutenean %58,2ra igozten da euskaraz hitz egiten den kopurua, eta aldiz, hurrekin batera daudenean ere, helduek hitz egiten badute eurek bakarrik egongo balira bezala hitz egiten dute: euskaraz %31.